


HIRUHILEKOKO KONTU EKONOMIKOAK (HKK), 2007KO 4. HIRUHILEKOA, eta 2007ko URTEKO BALANTZEA

Euskal AEko BPG%3,9 hazi zen eta ia 24 mila enplegu garbi sortu ziren 2007. urtean

Sektoreko hazkundeak Industrian, Eraikuntzan eta Zerbitzuetan balio horien inguruan ibili dira, baina Lehen Sektorea %8 hazi da

EUSTATEk landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGk %3,9ko hazkunde erreala izan du 2007an. Urte arteko hazkunde-tasa hori Espainiako ekonomian lortu dena baino hamarren bat handiagoa da (%3,8) eta EB-27rena (%2,9) baino puntu bat gehiago, eta Estatu Batuetan lortutakoa (%2,2) baino puntu bat eta zazpi hamarren handiagoa. 2007an ia 24.000 lanpostu garbi sortu dira, aurreko urtean baino %2,4 gehiago.

1. grafikoa. BPG m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-13 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

2007ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berberaren aldean, Euskal AEko BPGk moteldu egin du ordura arteko hazkunde nabarmena, tasa erreala %3,6 izan da, aurreko hiruhilekoko urte arteko tasa baino ehuneko bi hamarren gutxiago. Tasa hau ere Espainiako ekonomian lortu dena (%3,5) baino hamarren bat handiagoa da, EB-27rena (%2,6) baino puntu bat gehiago eta Estatu Batuetan lortutakoa (%2,5) baino puntu bat baino gehiago handiagoa.

2007. urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean, laugarren hiruhilekoko hazkunde %0,1 izan da. Hiruhileko arteko aldakuntza hori %0,8 izan da Espainiako ekonomian eta %0,2 Estatu Batuetako ekonomian; Europar Batasuna-27ko ekonomiako batez bestekoa %0,5 hazi da.

Sektore eskaintzaileen ikuspuntutik eraikuntzaren sektorearen bultzada apaldu egin da urteko laugarren hiruhilekoan, urte arteko tasa %2,9 delarik (aurreko hiruhilekoan baino puntu bat eta lau hamarren gutxiago). Hiruhilekoen arteko hazkundeak apaltzera jotzen du sektore honetan, %0,5 delarik.

Industria sektoreak BPGren azpitik dagoen jarduera-maila erakutsi du, %2,3ko urte arteko tasarekin urteko laugarren hiruhilekoan.

Merkatuko zerbitzuak %3,6ko urte arteko hazkundea lortzera iritsi dira. Tasa hori urteko hirugarren hiruhilekoan lortutakoaren berdina izan da. **Ez-merkatuko zerbitzuek** hiruhileko arteko eta urte arteko goranzko joera izan dute, urte arteko tasa %7,4 izan delarik.

1. koadroa. BPG m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2006	2007	2006				2007			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Nekazaritza eta arrantza	-9,8	8,0	-16,5	-7,8	-8,1	-5,3	8,2	11,5	2,0	10,8
Industria	4,9	3,8	5,6	4,6	4,8	4,6	4,9	4,6	3,7	2,3
Eraikuntza	5,1	4,0	4,8	5,3	5,1	5,0	4,5	4,4	4,3	2,9
Zerbitzuak	3,8	3,8	3,7	3,7	3,9	3,8	3,7	3,6	3,6	4,2
Produktuen gaineko zerga garbiak	5,3	4,3	6,7	6,1	4,9	3,6	4,0	4,2	4,8	4,4
BPGda merkatuko preziotan	4,2	3,9	4,4	4,3	4,2	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

Bilakaera horien ondorioz, **Zerbitzuen** sektoreak oso hazkunde tasa egonkorak izan ditu 2007an, laugarren hiruhilekoan %4,2ko igoera dagoelarik Ez-merkatuko zerbitzuen goranzko joerari esker.

Lehen sektoreak %10,8ko urte arteko aldakuntza positiboa lortu du, aurreko hiruhilekokoaren oso gaineratik. Hala ere, hiruhileko arteko aldakuntzari bagagozkio, %4,7ko jaitsiera izan da urteko hirugarren hiruhilekoaren aldean.

Eskariaren aldetik, **Famili Etxeetako Azken Kontsumoak (Kontsumo Pribatua)** atzera egin du hamarren bat, %3,2an geratu delarik. Hiruhilekoen arteko hazkundeak aurreko hiruhilekoan baino bost hamarren handiagoa da.

Herri-administrazioen azken kontsumoari dagokion gastuak, kontsumo publikoak, %4,2ko urte arteko hazkunde-tasa izan du laugarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan bezalaxe. Urte arteko azelerazio txikiaren profila erakutsi du, batez ere 2007ko bigarren erdian zentratua.

2007ko laugarren hiruhilekoan **Kapital Eraketa Gordina (Inbertsioa)** izan da Barne Eskariaren eragilerik dinamikoena, zeinak urte arteko %4,5eko hazkundeak izan baitu, aurreko hiruhilekoaren aldean apalduz hazkunde tasa, eraikuntzaren eta ekipoko ondasunen bultzada mantsotu delako.

Esportazioak, guztira, %6,6 hazi dira, eta Inportazioak, guztira baita ere, %6,4 lehengo urteko aldi beraren aldean; BPGren hazkundeari egiten zaion detrakzioa hamarren bat da bakarrik. Aurreko hiruhilekoan hiru hamarren izan ziren; honetan kanpo sektorearen datuak hobeak izan dira.

Pertsonal okupatua %2,3 hazi da 2006ko laugarren hiruhilekoaren aldean eta %0,2 2007ko hirugarrenaren aldean. Lau sektore handiek tasa positiboak izan dituzte, Nekazaritza eta Arrantza eta Zerbitzuak nabarmentzen direlarik, urte arteko %4ko eta %3,2ko igoerekin.

BPGk lurralde historikoetan duen bilakaerari dagokionez, 2007ko laugarren hiruhilekoan Gipuzkoa eta Bizkaia Arabaren gainetik geratu dira. Gipuzkoak eta Bizkaiak urte arteko %3,8ko hazkundea izan dute eta Arabaren hazkundea %2,7koa izan da.

2. koadroa. BPG m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2006	2007	2006				2007			
			I	II	III	IV	I	II	III	IV
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	4,2	3,5	4,3	4,2	4,2	4,0	3,9	3,7	3,3	3,2
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	2,8	3,7	2,7	2,9	2,6	2,9	3,0	3,7	4,2	4,2
Kapital-eraketa gordina	6,0	5,9	6,1	5,9	5,9	6,1	6,6	6,6	5,8	4,5
Barne-eskaria	4,5	4,2	4,6	4,5	4,5	4,4	4,5	4,5	4,1	3,7
Guztizko esportazioak	7,5	7,1	8,0	5,4	8,2	8,3	6,5	9,0	6,5	6,6
Guztizko inportazioak	7,7	7,3	8,1	5,7	8,4	8,5	7,0	9,2	6,7	6,4
BPGda merkatuko preziotan	4,2	3,9	4,4	4,3	4,2	4,0	4,1	4,1	3,8	3,6

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat

2007ko urteko balantzea BPG %3,9 hazi zen urtean zehar eta euskal ekonomian milioi bat lanpostu baino gehiago daude.

Sektore hazkunderik handiena **Lehen Sektoreari** dagokio. 2007an %8ko tasa lortu du. **Industriak** %3,8ko urteko hazkundera izan du, urtebete lehenago %4,9koa izan zuen. **Eraikuntza** %4 hazi da, BPG baino hamarren bat gehiago baina aurreko urtean baino puntu bat eta hamarren bat gutxiago.

Zerbitzuak %3,8 hazi dira, 2006an bezalaxe; **Merkatuko zerbitzuak** (%3,7) eta **Ez-merkatuko zerbitzuak** (%4,3) ezberdin aritu dira.

Barne eskaria %4,2 hazi da, 2006an baino hiru hamarren gutxiago, eta berak eusten dio BPGren bultzadari 2007an. **Inbertsioa** izan da Barne Eskariaren osagirik dinamikoena, %5,9 hazi delarik.

Azken kontsumoa (%3,6) bilakaera eta bolumen ezberdina izan duten bi elementuren emaitza da. Alde batetik, Kontsumo pribatua dago; %3,5 hazi da (%4,2 aurreko urtean); Kontsumo Publikoa aktiboago aritu da, %3,7 (%2,8 aurreko urtean).

Pertsonal enpleguak urte arteko %2,4ko hazkundera izan du 2007an. Azken urtean euskal ekonomiak ia 24.000 enplegu garbi sortu ditu. 2007ko bigarren hiruhilekoan lehenengo aldiz gainditu zen milioi lanposturen kopurua euskal ekonomian; urteko bigarren seihilekoan sendotu eta 1.011.00 lanpostu kopurura, batez beste, iritsi zen 2007an

Euskal AEko hiru sektore adierazgarrienetan lanpostu sorrera garbia gertatu da: lider Zerbitzuak ditugu (%3,3); ondoren Eraikuntza (%2,2) eta Industria (%0,7). Enplegua murriztu den sektore bakarra Lehen Sektorea izan da, %-1,9.

BPGk 2007an izan duen lurralde-banaketa dagokionez, Gipuzkoak eta Bizkaiak Arabakoa gainditu dute. %4,1ko eta %4,0ko tasa lortu dute hurrenez hurren, eta Arabak, berriz, %3,1ekoa.

Enplegua hiru lurraldeetan hazi da: Bizkaian %2,5, Gipuzkoan %2,4 eta Araban %2,2

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: José Javier Aramburu

Tlf:+34-945-01 75 99 Faxa:+34-945-01 75 01

Prensa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp